

 <p>AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H</p>	<p>IL0088</p>	<p>Gorpuak hilobitik ateratzea udal hilerrian</p>
---	----------------------	--

ZER DA? ZERTARAKO DA?

Gorpuak hilobitik ateratzeko eskariak. Hiru motatakoak izan daitezke:

- Gorpuak hilobitik ateratzea leku aldaketa barik.
- Gorpuak hilobitik ateratzea udal hilerri barruan lekuz aldatuz eta, ondorioz, beste ehorzketa bat eginez
- Gorpuak hilobitik ateratzea udal hilerri kanpora lekuz aldatuz.

NORK ESKA DEZAKE?

Pertsona fisiko edo juridikoak edo bere lege ordezkariak.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- [E059 Gorpuzkinak lekuz aldatzeko eskaera](#)
- Hilerrian beste ehorzte bat egin behar bada, eskariak nitxoaren lagapena ere barne hartzen du
- Beste ehorzte bat egin behar bada, eta nitxoaren jabe izanez gero, horren titulua erakutsi beharko da.
- Gorpuak hilobitik atera eta udal hilerri kanpora lekuz aldatu nahi bada, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren baimena beharko da.

NON ESKATZEN DA?

Aurrez aurre:

- [Udaletxea](#)
Udaletxea
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO
Ordutegia: 7:30 - 15:00

ZENBAT KOSTATZEN DA?

<p>01 - Udal Hilerriko Tasak</p>	
<p>Lehenengoz erabiltzeko batentzako nitxo-esleipen bakoitzeko</p>	<p>492,49 Euro</p>

Lehenengoz erabiltzeko birentzako nitxo-esleipen bakoitzeko	1.896,03 Euro
Lehenengoz erabiltzeko batentzako nitxoa gehi hondarrentzako nitxoan esleipen bakoitzeko	1.516,57 Euro
Hondarrentzako nitxoan esleipen bakoitzeko	1.024,18 Euro
Lurperatze, desobitze edo leku-aldatze bakoitzeko	56,49 Euro
Lurperatze, desobitze edo leku-aldatze bakoitzeko (zinkeko kutxarekin)	109,23 Euro
Kolonbarioko emakida bakoitzeko	395,65 Euro
Zinkeko kutxa erosteagatik	52,74 Euro

PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako epea: Hilabete 1

Prozedura arrunta. Legezko gehienezko epea: 3 hilabete

Isiltasun-administratiboaren izaera: Aurkakoa

ARAUDI APLIKAGARRIA

- [202/2004 Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko Erregelamendua onartzen duena.](#)
- [Amorebieta-Etxanoko udal hilerrien barne araubidearen erregelamendua.](#)

ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

1-Gorpuak hilobitik ateratzeko baimena

2- Ehorztekoko eguna eta ordua eskatu.

3- Ehorzketa

Familiako panteoian:

Panteoia ireki ehorzketarako: izapide hori udal buleguetan egin behar da, ehorzketa aurretik. Panteoiaren titularrek baino ezin izango dute eskatu horren irekiera, heriotza bat gertatzen denean. Hildakoa titularra bada, gertuko edozeinek sina dezake eskaria.

Izapide horren bitartez, panteoia titularren baimen barik ez zabaltzea bermatzen da.

Ehorzketa egiteko baimena duten familiako hilobiaren titularrak nortzuk diren egiaztatu nahi izanez gero, kontsultatu gure bulegoan.

NORK ONARTU BEHAR DU?

Alkatetza

IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Arlo Teknikoa - Azpiegiturak eta zerbitzuak

OHARRAK

